

Panderoari eraginez

Maiatzetik panderoa jotzen ikasten ari da herritar talde bat ▶ 4



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ Igandea ▶ 2006-07-30 ▶ IV. urtea ▶ 951. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

Festen azken txanpan murgildu dira Altzon eta Villabonan

FALTA DENA ▶ Altzon etzi amaituko dituzte San Inazio jaiak, eta Villabonan, berriz, bihar, santioak ▶ 7



Villabonako festetan, atzo egindako Euskal Jaiaren baitan, erromeriaren une bat. IMANOL GARCIA



IMANOL GARCIA

Juan Mari Jauregiri omenaldia eskaini diote

TOLOSA ▶ Atzo sei urte bete ziren ETAK hil zuela; bake prozesuari «babesa emango ziola» esan zuen bere alargunak ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Presoen etxeratzea eskatu dute

Atzo, N-1 errepidean egin zuen, oporretako irteera zela baliatuz, elkarretaratzea Etxerat-ek ▶ 6



Atzo, N-1ean. I. GARCIA

ARESO ▶

Herriko sokatira taldea azpitxapeldun

Goiherri A taldearen atzetik geratu zen atzoko 560ko saioan ▶ 5

IRUDIETAN ▶

Leitzako Ateka Beltz Gaztetxea ireki dute

JAIONE ASTIBIA

Atzodanik, Leitzako Ateka Beltz Gaztetxea irekita dago; egun osoko festa eginez, zabaldu zituen bere ateak. Urtebete dela sartu ziren gazteak eraikinean, eta denbora honetan aldaketa handiak eragin dizkio, batez ere, beheko solairu guztiari, atzo bertara joan zirenek egiaztatu ahal izan zuten bezala: harrirituta, «ikusgarriko lanak egin dituzte», zioten; eta batek baino gehiagok gazteak zoriandu zituen egindako lanagatik.



Kalejiran, plazatik Ateka Beltzera joan ziren, txistulariekin eta dantzariekin.



Txalapartak egin zion ongetorria jendeari.

UZTURRETIK ▶ BITTOR MADINA

Harribitxiak



Hilabete eta erdiro zure buzoian irakurgai xeheak oparitu dizkizut. Ekainaren bukeran eskola eta ikasletoleako ikasleek oporrak hasi zituzten. Gaurtik aurrera gehiengo osoak, nolabait esateko, abuztuko opor goxoak aurre-urrean ditu. Beharbada gehienak irakurtzeko asti gehiago izango duzue.

Oporrak, urtean zehar, egun bereziak eta desberdinak dira. Dizdira ematen dizkiguten egunak. Harribitxiak, hain zuzen. Ni neuk ere, klasikoak eta Lichtenberg-en liburuetan aurkitutako harribitxiak aurrean jartzen dizkizut udako adamin honetan, urteko erdi lanari bukaera emateko. Esaldi motzak, batak besteekin lotura gabekoak baina oso esanguratsuak eta gure buruko ordenagailuan aisa edo erraz gordetzeko eta ageriarazteko direnak.

Ez dago zure esku aberatsa izatea baina bai zoriotsu izatea.

Ez oso gertu ezta ere oso urruti pobretasunetik: hemen datza aberastasunaren oinarria.

Atseginagoa da ematea hartzea baino.

Eskergabea da esker ona isiltasunera mugatzen duena.

Nola bizi behar den aldarrikatu ezazu esaten duzun hori zeuk burutu ez arren.

Ez ezazu lagunetaz gaizki hitz egin; ezta etsaitaz ondo ere.

Ez itzazu ziztu bizian lagunak zeureganatu ezta dituzunak baztertu ere.

Hildakoa zoriontsua dela kontuan izan ezazu.

Oroitzapenak agortzen ez diren opari magikoak dira.

Dordokek bideari buruz erbiek baino gehiago eta hobeto erakutsi diezagukete.

Persiarrek liburu on bati 'divan' deitzen diote, hau da, 'jakintsuen bilera'.

Gaur egun ez dugu sorginik sutan erretzen; bai, ordea, benetako egia gordina dakarren karta edo mezurik.

Kamper jaunak kontatzen du misiolari batek Groenlandiko eliztarrei infernuko sugar espartagarriz eta bertako kristoren beroaz predikatzen zienean, denek sutsuki nahi zutela infernu hori.

Epaitzen dute eurak epaituak izan ez daitezten.

1796ko urriaren 8an, tximista batek Alemania-ko iparraldeko Andreasberg herriko zati handia sutan kiskali zuen. Bizilagunek tximista erori zen etxeko nagusiari babesa edo aterpea ematea ukatu zioten. Jainkoak tximista gizarajo horren etxera jaurti zuen aurrena etxeko nagusi hori doilor edo zirtzil hutsa zelako.

Lurrak udaberrian emandako hostoak, udazkenak banan-banan itzultzen dizkio lurrari.

Irakurtzen dudak gehiena ahazten dut; aurreko egunean zer jan dudak ere bai. Baina badakit, ondotxo gainera, irakurketaren eta janariaren eraginak nire onerako direla.

Beraz, on egin eta lasai igaro abuztuko oporrak.

TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

Zer diozu puntukako gidabaimenari buruz?

Eskatzen den bezala gidatu, arauak errespetatu, eta ez dago arazorik, ez eta puntuak kentzeko beldurrik ere.

handiago bat ez badute egiten beste nonbait: kalkuluak atera zituzena, majadero galanta!

KOXME ▶ DENA TXIKIA

Usabalgo kanpoko igerilekuaz

Belar eremua txiki geratuko dela iruditzen zait, ordu batzuetan ez baita jende gehiago kabitzen. Udalari eremua handitzea proposatuko nioke.

TXIKI ▶

Dena txikia geratu dela iruditzen zait, hasi orduko: igerilekua bera, belazea, takila kopurua... Bero handia egin duen egun horietan, behintzat, ama-semerik ez zegoen bainu bat hartuko zuenik: igerilekuaren buelta guztian jendea, ertzean jarrita freskatzeko... Erremedio txarra du, hori bai: beste igerileku berri eta askoz

Hasteko, esan beharra dago kiroldagiko igerilekuak txiki geratu direla. Bestetik, nola da posible orain gutxi Gipuzkoako kiroldagirik onena, handiena... bezala inauguratutako Usabalgo eraikuntzako kanpoko sabaitik ura sartzea? Eta euri pixka bat egiten duenean dena urperatuta gelditzea? Bestalde, nondik atera dute Usabalgo Gipuzkoako kiroldagirik handiena dela? Bisitatu al dituzte, besteak beste, Hondarribikoa bezalako kiroldagiko igerilekuak? Argi dagoena da obrak inolako fundamentu eta kontrolrik gabe egin direla, eta orain ondorioak... Non zebiltzan orain egunero kiroldagiko dauden Udaleko arkitekto, inspektore eta abar obra egiten ari ziren bitartean? Orain entzun dut bidegorriaren bigarren fasea egiteko Usabalgo aurrealdea berriz ere ireki behar dutela. Ez al zekiten bidegorriak bertatik pasatu behar zuela? Usabalgo txapuz bat da. Udal agintariek ez dute lotsik.

TXOMIN ▶ TXAPUZA

iragarki laburrak ▶

LAN HEZKUNTZA

Osakidetza. Lanpostuak betetzeko jendea behar da: zaindariak, administrari laguntzaileak, sukalde laguntzaileak, gidariak, laborategiko laguntzaileak. Berehalako deialdia: 943 313782.

Diputazioak. Diputazioak sukaldari laguntzaileak eta zaintzaileak behar ditu. 943 313782.

Laborategi teknikariak. Laborategi teknikariak diputaziorako plaza libreak. 943 313782.

Liburutegi laguntzaileak behar dira

zenbait udalbetetan. 943 313782.

Administrari laguntzaileak.

Anoeta, Beasain, Bergara, Sorulaze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro... udalbetetan administrari laguntzaileak behar dira.

943 313782.

Peoiak, garbitzaileak, lorezainak behar dituzte. Bergaran, Hernanin eta Errenterian.

Informa zaitze: 943 313782.

Haur zaintzaileak, hezitzaileak.

Eskola publikoetarako plaza libreak. 943 313782.

Peoiak. Udalbetetan postu fijoak betetzeko. 1200 euro/hileko. Arratsaldeak libre.

943 313782.

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira. Doaneko informazioa.

943 313782.



Ateka Beltz atepak zabal; esanahi handiko irudia.



70 bat gazte bildu ziren bazkaltzera, arratsaldeko jokoetarako eta gainerako ekitaldietarako indarrak hartzera. JAIONE ASTIBIA

ESANAK ▶



JON IRAOLA
IMITATZAILEA ETA
'WAZEMANK'-EKO AKTOREA

«Pertsonaia bakoitzak bere lanketa du: hitz egiten duen era, janzkera... landu egin behar dira»

«'Wazemank'-en arrakastaren giltza? Erabiltzen den kaleko euskara, pertsonaiak... Bazen garaia honelako umorezko programa bat euskaraz egiteko. Hemen umore politikoa besterik ezin zitekeela egin ematen zuen»

«Gure umorea naturala da. Inori minik egin gabe egiten dena, alegia»

'Galtzaundi' (2006-07-21)

ASTEKO IRUDIA ▶



Leidor berritua estreinatu zuen Euskadiko Gazte Orkestrak

Imanol Garcia ▶ Tolosako Leidor antzoki berrituan lehen emanaldia ikusi ahal izan zen herenegun gauean. Ez zen estreinaldi ofiziala izan, hori irailaren 8an izango baita, baina tolosarrentzat lehen kontaktua izan zen, berrikuntzak ikusteko, sonoritateaz jabetzeko, eserlekuak frogatzeko... Euskadiko Gazte Orkestra izan zen lehen

emanaldi hori eskaini zuena. Igor Stravinskyren eta Carl Maria von Weber-en obrak jo zituzten. Aretoaren hiru laurdenak betetzen zituen ikusleagoak gogotsu txalotu zuen musikari gazteen kontzertua. Leidorren egingo den hurrengo emanaldia musika eta dantza uztartzen dituen *Le Basque* izango da, abuztuaren 4an. i. g.

GAZTELU ▶ KULTURA

Pandero ikastaroa burututa, herriko jaietan egingo dute erakustaldia

Maiatzean hasi ziren pandero eskolak ematen Gaztelun; geroztik hainbat gazte «gogo biziz» ari da ikasten

NEREA LIZARTZA

Duela gutxi hasi baziren ere, emanaldi bat emateko prest ikusten dute euren burua. Gazteluarrak dira guztiak; batzuk panderoa jotzea dute aspaldidanik zaletasun, baina, bolada bat zeramaten instrumentua ukitu gabe. Beste batzuk ostera, pandero bat inoiz ukitu gabekoak dira, baina, ikasteko gogo ikaragarria zutenaz, eskoletan izena ematea erabaki zuten.

Herrian pandero eskolak ematearen falta zegoela konturatu zen gazte talde bat; beraz, proiektua martxan jartzeko buru-belarri ekin zioten lanari. Euren lanak eman du, baina,



Eskolak hasi baino lehen hainbat ikasle elkartean. HITZA

fruiturik. Izan ere, aurtengo maiatzean herriko sei gazte inguru —batzuetan gehiago eta beste batzuetan gutxiago— el-

kartzten hasi ziren panderoa nola jo ikasteko eskolak jasotzeko asmoz. Lekua erraz aurkitu zuten; berritu berria zego-

en herriko elkarteak izan baitzen guztien artean adostutako tokiak.

Astean behin izaten dituzte eskolak, astelehenetan, hain zuzen ere. Gaueko bederatzietan jarri zuten hitzordua, izan ere, guztiak elkartzeko momenturik hobereena horixe zen. Ordu bete inguruan aritzen dira, beraz, gazteak panderoa astintzeko teknikak eta trikimailuak ikasten.

Aurtengo ikasturteari amaiera eman badiote ere, datorren urtean jarraitzeko «gogo biziz» daudela azaldu dute pandero-joleek. Edonola ere, irailen egingo duten bilera batean adostuko dute datorren ikasturterako plangintza.

Bestalde, uda honetan lehen emanaldia eskaintzeko asmoa ere badute: Gaztelun bertan izango da eta festak direla aprobetxatuz, herriko trikitilari

batekin elkartuko dira jendareko lehen ikuskizuna eskaintzeko.

Dena den, ikasleen lehen emaldi horrek kutsu berezi bat izan dezan, Aresoko pandero-jole batekin harremanetan jarri dira; panderoa jotzeko beste teknika bat irakatsiko baitie aresoarrak: gorputz osoarekin —ez eskuarekin soilik— panderoa nola jo, alegia.

Orain, beraz, emanaldi horri begira dabilta lanean guztiak; batetik, ikasturte laburrean zehar ikasi dutena ahal bezain ondo ikasteko eta bestetik, aldiz, aresoar irakaslea irakasten ari zaien teknika berria ahalik eta hoberen barneratzen. Abuztuaren 15ean izango dute ikasitakoa herritarrei erakusteko aukera; fandango, arin-arin eta porrusaldak joko dituztela azaldu du pandero irakasleak.

AMAIA PAGOLA ▶ IRAKASLEA

«Gero eta jende gutxiagok ikasten du panderoa; orain beste instrumentu batzuk daude boladan»

N. Lizartza ▶ Amaia Pagolak pandero eskolak ematen ditu; hasi berria da gazteluar gaztea ofizio honetan. Edonola ere, aspaldidanik du afizio panderoa jotzea. Urte dezente igaro ditu ikasten eta baita festetan edo afaritan trikitilariekin batera emanaldiak eskaintzen. **Zenbat denbora daramazu panderoa ikasten?**

Hamar urte ingururekin hasi nintzen Ibarroka musika eskola batean. Halere, txikitatik nuen panderoa ikasteko gogo. Behin zerbait ikasita, eskolan nirekin zebilen batekin aritzen nintzen bikote bezala jotzen. Ondoren, Gazteluko trikitilari batekin elkartu nintzen, eta oraindik ere berarekin aritzen naiz bikote bezala.



HITZA

Zer moduz ari zara moldatzen irakasle lanetan?

Ondo, esperientzia berria da. Hasieran beldur pixka bat ematen zidan erronkak, baina ikasleak gustura daudela ikusten dut, eta beraz, ni ere oso gustura joaten naiz.

Herrian pandero eskolak falta botatzen zenituen. Beste tokietan ere hutsune hori ba al dago?

Bai. Pixkanaka galtzen ari da pandorako afizioa; orain jendeak nahiago ditu beste instrumentu batzuk, gitarra, esaterako. Gero eta jende gutxiagok du panderoa jotzen ikasteko

interesa; galtzen ari den ohitura bat da. Garaiak aldatu egin dira eta beste teknika batzuk ari dira boladan jartzten orain.

Gazteluko festetan emango dute ikasleek lehen emanaldia. Zer moduzkoa ari da izaten prestaketa lana?

Ondo, datorren astelehenean bilduko gara trikitilariarekin —gazteluarrak haur ere— eta azken ikutuak emango dizkio orain arte ikasitakoari.

Adin guztietako ikasleak dituzu; ez al da eragozpen bat zuretzat?

Ez. Ikasle gazteenak hogeitau urte dituzte eta zaharrenak, berriak, berrogei inguru. Halere, adinean desberdintasuna duten arren, oso ondo moldatzen gara guztiok. Giro ona dauka gure artean eta hori garrantzitsua da. ◀

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Ibarra. 90 m2ko etxebizitza salgai. Berritua izan ondoren estreinatzeko. 3 gela, sukalde, bi bainugela, egongela, 20 m2ko terraza, 25 m2ko txokoa. Inmoeki: 675 70 52 68. **Tolosa.** La Estrella. 93 m2ko etxebizitza ederra. Hiru logela, sukalde eta bainugela hornitua ditu. Egongela kanpoaldera. Garajea

aukeran du. Inmoeki: 675 70 52 68 telefono zenbakia.

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91. **Zerbitzaria.** Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. 677 32 99 34.

ZABALA DESGUAZEA

- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industriegunea, 18 • BELAUNTZA

hitza

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN praktikak egin nahi?

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioan lizentziaturiko Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleei zuzendua

Urritik abendura aritzeko lanaldi erdiz Kredituak baliozkotuko dira

Curriculum-a bidali helbide hauetara, irailaren 13a baino lehen:
Araba etorbidea, 5. atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Lanku

Allzo Bertso Saioa

Frontoian uztailak 30
22:30etan

Andoni Egaitza
Mikel Lumbao
Oria Lumbao
Igor Ertza
Aritz Bermejo
Jesus Mari Irujo

TOLOSA ▶ POLITIKA



Renedo, Rodriguez, Lasa eta Parra, Jauregiren argazkiarekin. I. GARCIA

«Babesa emango zion Zapaterori»

Juan Mari Jauregi omenaldia eskaini diote ETak hil zueneko 6. urteurrenean

IMANOL GARCIA

Sei urte bete ziren atzo ETak Juan Mari Mujika hil zuela Tolosako Fronton kafetegiarekin kanpoaldean. Urtero bezala, PSE-EEk omenaldia eskaini zion eta 150 lagun inguru bildu ziren bertara. Marixabel Lasak, Jauregiren alarguna izateaz gain EAeko Biktimen Arretarako Bulegoko zuzendaria dena, azaldu zuenez, «ETAren su-etenaren ostein azaldu dudana bezala, ireki den prozesuan dudarik gabeko babesa ematen diot Zapateroren Gobernuari. Juan Mari ere bere babesa emango zion».

Jauregiren argazkiaren aurrean lore-eskaintza eginez hasi zen omenaldia. Marixabel Lasak eta Oscar Renedo Tolosako PSE-EEko zinegotziak utzi zituzten loreak. Biek momentu bereziak bizi ditugula zioten. Lasak esan zuenez, «momentu garrantzitsua da hau. Ez dakit lehenengo aldiz, baina bai behintzat hain argi ikusten dena soluzio bat egon daitekeela, pakea eta askatasuna egon daitekeela. Eta dei egiten diet alderdi politikoei, denak elkarrekin biltzeko, denak aho batez ekimen hori bultzatzeko, alderdi guztien beharra dugulako. Berezik, Alderdi Popularrak animatu nahiko nuke, prozesuan egon behar dutelako uste dudalako eta beraien beharra

dugulako bake prozesu honetan».

Renedok, bere aldetik, «esperantza uneak» bizitzen ari garela esan zuen. «Hiru urte daramatzagu ETak heriotzik eragin gabe eta amets egitera bultzatzen gaituen su-eten iraunkor batean gaude. Nik gaur amets egin nahi dut. Aurrean dugun eszenatokiak behin betirako pake batera eramango gaituela amets egin nahi dut». Ekitaldian ere parte hartu zuen Jose Manuel Rodriguez Espainiako biktimen goi komisionatuaren zuzendari orokorrak. Hiru hizlarien ondoren izan zen Pablo Parra ere, Jauregiren lagun mina politikagintzan.

Juan Mari Jauregi Tolosako zinegotzia izan zen. Horrekin lotuta, zinegotzi zenean San Joan jailetako prozesioan erabiltzen zuen kapa eman zitzaion atzo bere alargunari. «Juan Mari ordezkatu nuenean, bere neurrira eginda zegoen kapa jaso nuen», azaldu zuen Oscar Renedok. «Da 14 urtetan izan dut nirekin, maitasun handiz, eta ikusi genuen Udaltzatik, alkatea buru zela, momentu ona zela Juan Mariren alargunari kapa emateko, oroitzapen eta omenaldi bezala». Lasarentzako «oso hunkigarria» izan zen bere senarrak festetan zeraman kapa jasotzea.

ARESO ▶ KIROLAK

Areso azpitzapeldun izan da 560koan, saioan Goiherrekin berdinduta

16 minutu eta 14 segunduko tiraldia, luzeena, aresoarrena izan zen



Aresoko taldea, lanean atzo. Bigarren egin zuten saioan eta zilarrezko dominak irabazi zituzten. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Etxeko saioan, Goiherri A taldearekin, txapeldunarekin, berdinduta, zilarrezko domina irabazi du Areso sokatira taldeak, 560 kilotako Euskal Herriko Sokatira Txapelketan.

Sekulako ikuskizuna eskaini zuten lehian aritu ziren bost taldeek. Aurreko bi jardunaldietatik irabazleak erabakitzeko baziren ere, bigarren lekurako borroka zegoen Areso eta Gaztedi Aren artean, eta hain zuzen ere arratsaldeko 3. tiraldia izan zen horretan, Areso gailendu zenez, 3 puntu oso erabakior izan ziren hauek, lehendabiziko tiraldia, gainera, 11 minutu eta 12 segundotakoa egin zutelarik. Bueltaokak minutu bakarra iraun zuten.

Baina, tiraldi luzerik izan bazen, eta apartekoa, azken bigarren suertatu zen; Areso eta Goiherri Ak egin zutena.

16 minutu eta 14 segundu luze-tan, soka aresoarren aldera zegoela, taldeek bina falta zituzten ordurako, eta epailek tiraldia ezeztatu egin zuten. Leku berean, berrizko tiraldian, Areso gailendu zen 5 minuturen burura; bueltaokan, berriz, bizkaitarrak, puntu banaketa eraginez. Zaletuen txaloekin, Areso txapeldunorde.

SAILKAPENA ▶

560 KILO
Areson.

Taldea	I	II	III	G.
1. Goiherri A	10	4,5	14,5	
2. Areso	7	4,5	11,5	
3. Gaztedi A	7	3	10	
4. Goiherri B	3,5	1,5	5	
5. Gaztedi B	2,5	1,5	4	

OLATZ
ERREKREAZIOTZAK

ASTEASU: Guztiz eraberritua. Hormigoizkoa. Primerakoa. 35.500.000 pztz.

IRURA: Pisu ikusgarria. 125 m2 terrazarekin eta garajea. Urbanizazio pribatua eta frontoia. 54.000.000 pztz.

TOLOSA: 3 logela. Eraberritzeko. Hormigoizkoa. 31.000.000 pztz.

VILLABONA: 2 logela. Kalitatezko materialekin. Berogailua eta igogailua. Bikaina. 44.000.000 pztz.

VILLABONA: 2 logela. Erdi eraberritua. 35.000.000 pztz.

VILLABONA: Eraikuntza berrikoa apartamentua, bikaina.

ZIZURKIL: Ertzeke etxe itsatsia. Lursailarekin. Aparta.

Errota 2 - Villabona
Olatzinmo@euskalnet.net
943 243 118 - 635 706 728

Pasatzen den egun bakoitzeko, errepikatuko ez den eskaintza bat

Salou 350€ (2006ko 08/01tik, 8 egun/7 gau, 2006ko 07/26tik, Martxo eta 1 eta 3. Sarrera, 1000€tik behera)

Benidorm 350€ (2006ko 08/01tik, 8 egun/7 gau, 2006ko 07/26tik, Martxo eta 1 eta 3. Sarrera, 1000€tik behera)

Tenerife 497€ (PUNTO DE LA CRUZ, 10/10/06tik, 8 egun/7 gau, Jauregiaren Biktimen Heriotza Gogoratze Ezer-10, 1000€tik behera)

Mallorca 491€ (CALA MURCI, 10/10/06tik, 8 egun/7 gau, Jauregiaren Biktimen Heriotza Gogoratze Ezer-10, 1000€tik behera)

Eta gainera:

PortAventura 220€ (2006ko 08/01tik, 8 egun/7 gau, 2006ko 07/26tik, Martxo eta 1 eta 3. Sarrera, 1000€tik behera)

Gran Canaria 880€ (2006ko 08/01tik, 8 egun/7 gau, 2006ko 07/26tik, Martxo eta 1 eta 3. Sarrera, 1000€tik behera)

www.viajeseroski.es

EROSKI bidaiak
merzei eluztu

PRESOAK ▶



Etterat-en elkarretaratzeak N-1ean

I. Garcia ▶ Urtero moduan, Etterat-ek elkarretaratzeak egin ditu errepideetan, oprobretako irteeran, *Euskal preso eta iheslariak etxera* lelopean. Eskualdean N-1 errepideko hainbat puntutan egin dituzte, argazkiko Tolosako irteeran bezala. Hurrengo hitzordua hondartzetako konzentrazioak izango dira, abuztuaren 6an. Eskualdetik Donostiako Kontxako erlojuan elkartzeko dira, 11:45ean. IMANOL GARCIA

TOLOSA ▶ KIROLAK



Lontxo eta Nazabal, paletako txapelkun

J. Astibia ▶ Aurtengoan ere, Lontxo-Nazabal bikoak irabazi zuen herenegun iluntzean, XXXVIII. Tolosa CFko Paleta Txapelketa: 30 eta 20 irabazi zieten Otermini eta Goitiari, oso partida polita jokatuta. Jaialdiko aurreneko partida, ordea, 3. eta 4. postuak erabakiko zituen izan zen. Hemen, 30 eta 22ko emaitzarekin, Zabaleta eta Aldazabal —Urdanpilletaren ordez— gailendu ziren Berasategi eta Aierdiren aurka. JAIONE ASTIBIA

JAIK ▶

Etengabeko festa aukera

Kanpora joateko aukera ez dutenek, bertan ederki gozatzeko parada ere izango dute abuztuan; Baliarraig, Hernialdeko, Amezketa, Berrobiko eta Goiatz auzoko jaietan, esaterako

ERREDAKZIOA

Baliarrainen, Hernialden, Goiatzen, Amezketa eta Berrobiko egitarau oparora prestatu dute herriko jaietarako:

BALIARRAIN

ABUZTUAK 13, IGANDEA

20:00. Suziriak, kanpai doinuak, eta kalejira.

Ondoren. Sagardo dastaketa. Gauean. Irma eta Amets.

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

11:00. Herri mailako pilota partidak.

18:00. Poxpolo eta Mokolo.

Ondoren. VIII. Patata Tortila Lehiaketa eta zahagi-ardoa.

Gauean. Disfraz gaua, Tapia eta Leturia trikitilariak alaituta.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

11:00. Meza Nagusia.

12:00. XLIV. Txirindulari Igoera, XVIII. Jesus Nazabalen oroitzapenean.

Ondoren. Unsain anaiak.

18:00. Herri kirolak, Bartali IV. aren oroitzapenean. Segapustua: Baliarrain-Asteasu.

Ondoren. Unsain anaiak.

23:00. Trontza motozerraren aurka.

Ondoren. Kupela taldea.

ABUZTUAK 16, ASTEAZKENA

11:00. Meza Nagusia.

Ondoren. Hamaiketako.

12:00. Herri mailako maratoia eta Toka Txapelketa. Txakolin dastaketa eta trikitilariak.

Arratsaldean. Puzgarriak.

18:00. Ume jolasak.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Etxabe anaiak goizalderarte. Tartean, handi jolasak eta herriko bertsolariak.

HERNIALDE

ABUZTUAK 13, IGANDEA

12:30. Meza Nagusia.

Ondoren. Sagardo Dastaketa, trikitilariak alaituta. Jarraian, bazkaria, bertsolariak.

18:30. Herri kirolak, Mugertza aita-seeekin.

Iluntzean. Trikitixa.

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

11:00. Suziriak eta buruhandien kalejira.

12:00. Herritarren lehia.

14:00. Umeen bazkaria.

Ondoren. Haur jolasak eta kometa ikuskizuna.

18:00. Potxin eta Patxin.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

12:30. Meza Nagusia.

Jarraian. Hamaiketako.

19:00. *Erreleboa* antzezlan.

Ondoren. Trikitixa.

GOIATZ

ABUZTUAK 14, ASTELEHENA

14:00. Suziriak eta ezkeriak.

17:00. Ume jolasak.

20:30. Meza.

21:00. Herri afaria Telleria eta Mendiluzek alaituta.

Ondoren. Trikitilariak.

ABUZTUAK 15, ASTEARTEA

11:00. Meza Nagusia.

Ondoren. Hamaiketako.

12:00. Pilota partidak.

23:00. Etxabe anaiak.

Atsedenaaldian. Txinga probak.

ABUZTUAK 19, LARUNBATA

16:00. IV. Mus Txapelketa.

22:00. Herriko dantzariak.

23:00. Bertsolariak.

Ondoren. Izer eta Alabier.

ABUZTUAK 20, IGANDEA

12:00. Meza Nagusia.

Ondoren. Herriko dantzariak, eta poteo herrikoa.

19:00. Herri kirolak.

23:00. Trikitilariak.

AMEZKETA

ABUZTUAK 23, ASTEAZKENA

18:00. Kalejira.

20:30. Elbiaren jaitsiera eta ikurrinari agurra.

21:00. Zahagi-ardoa.

23:00. Etxabe anaiak.

ABUZTUAK 24, OSTEGUNA

09:00. Kalejira.

11:00. Meza Nagusia.

Ondoren. Hamaiketako Goiko lokalean, bertsolariak eta trikitilariak. Jose Bikondoaren erakustaldia.

17:30. Pilota partidak, eta gaz-

tetxoentzat Gorritiren abereak.

Ondoren. Asto karrera.

22:00. *Erreleboa* antzezlan.

Ondoren. Imuntzo eta Beloki.

ABUZTUAK 25, OSTIRALA

11:30. Gaztetxoan pilota partidak, eta txakolin dastaketa.

15:00. Puzgarriak.

18:00. Umeentzat herri kirolak

Zurgai taldearekin.

23:00. Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak. Atsedenaaldian, moztarren puntuaketa.

ABUZTUAK 26, LARUNBATA

16:00. Mus Txapelketa.

20:30. Txekor jatea eta sagardoa txotxetik.

Ondoren. Kontzertuak eta berbena: Xtrail, Eraso eta Nekin.

ABUZTUAK 26, LARUNBATA

16:00. Mus Txapelketa.

20:30. Txekor jatea eta sagardoa txotxetik.

Ondoren. Kontzertuak eta berbena: Xtrail, Eraso eta Nekin.

ABUZTUAK 27, IGANDEA

09:00. Kalejira.

11:30. Meza Nagusia. Ondoren, Iparraldeko herri kirolak.

18:00. Arkupe dantza saioa.

20:30. Sagardo dastaketa.

Ondoren. Larrañaga eta Etxeberria bertsolariak eta Kupela taldea. Atsedenean, Elbiaren igoera eta Sokadantza.

ABUZTUAK 27, IGANDEA

09:00. Kalejira.

11:30. Meza Nagusia.

Ondoren. Hamaiketako Goiko lokalean, bertsolariak eta trikitilariak. Jose Bikondoaren erakustaldia.

17:30. Pilota partidak, eta gaz-

tetxoentzat Gorritiren abereak.

Ondoren. Asto karrera.

22:00. *Erreleboa* antzezlan.

Ondoren. Imuntzo eta Beloki.

16:45. Bike Trial Show.

18:30. Umeen IV. Toka Txapelketa.

21:00. Herri afaria.

ABUZTUAK 26, LARUNBATA

10:00. Gorritiren abereak.

12:00. Paella prestaketa.

14:00. Koadrilen bazkaria.

16:30. Piraten jokua.

18:00. Bertsolariak, toka eta txingak.

00:00. Laket taldea.

ABUZTUAK 27, IGANDEA

11:00. Krosa.

18:00. Herri kirolak.

20:00. II. Trikitilari Gazteen Txapelketa.

23:30. DJ Black.

ABUZTUAK 28, ASTELEHENA

09:00. Goizeresia.

12:00. Gaztetxoan arteko pilota partidak.

17:30. Sagardo dastaketa.

Ondoren. Kukaña eta txerri harripaketa.

23:00. Frontiseko pilota partidak.

ABUZTUAK 29, ASTEARTEA

10:00-14:00. Puzgarriak.

15:30. Futbol partidak.

17:00. Askaria eta buruhandien.

17:30. Kulki: gaztetzat, umeentzat eta helduentzat jokuak.

20:00. Euskaraokea eta play-back-a.

AZOKA ▶

Produktuen eskaintza berpiztu egin da

Bai kopuru aldetik, bai kalitate aldetik ere, ikusitako eskaintza ederra izan zen

PABLO ALBERDI

Pasa diren egunotako eurik oso eragin positiboa izan du azokaren produktuengatik. Perretxiko zerrenda adibidez, berriro berpiztu egin da, eta bai kopuru aldetik, bai kalitate aldetik ere, ikusitako eskaintza ederra izan zen. Han izan ziren ondoak, ziza horiak, gibelurdinak, eta gorringo kilo dexente ere. Hau da, jakintsu batzuentzako perretxikorik finena, ondoen gaintetik, eta atzo dastatzeko aukera izan zen azokan.

Barazki zerrenda ere asko hobetu da euria dela eta. Tomatea bete bete ikusten zen, lekak ere oso itxura onekoak ziren, eta piparrak edo eta kalabazinak, joan den aste-ko itxura polita zuten atzokoan ere.

ATZOKO AZOKA ▶

	merk.	gares.
Berdura Plaza		
Alegria	1,00	1,20
Surfinia	2,20	2,40
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00

Bertako produktuak		
Tomatea	2,50	4,00
Piparrak	5,00	6,00
Lekak	2,50	3,50
Kalabaza	1,50	3,00

Produktu ekologikoak		
Azenarioa	2,00	2,50
Tipula	1,75	2,00
Inxaurra	4,00	6,00
Aza	2,50	3,00

ALTZO-VILLABONA ▶ JAIAK

Festen azken txanpa

Villabonako santioak bihar amaituko dira eta Altzoko saninazioak, etzi



Altzon, haurrek gustura egin zituzten marrazkiak; plazan bertan erakutsi zituzten egindako lanak. I. GARCIA



Zikiroa prestatu bitartean, jendea sagardoa dastatzen aritu zen. I. G.

IMANOL GARCIA

Eskualdeko bi herri festetan murgilduta daude egunotan. Villabonako santioak ospatzen ari dira eta Altzon saninazioak. Ia-ia festen azken txanpan daude bi herriak. Villabonako bi egun gelditzen zaizkie. Altzon, aldiz, egun bat gehiago.

Atzokoan, Altzon haurrentzako hainbat ekitaldi prestatu zituzten goizean. Alde batetik, marrazkiak egiten jardun zuten eta bestetik, bizikletan. Bietan lehiakortasuna kendu nahi izan dute antolaketa lanetan diharduten gurasoek. Horrela,

lehen marrazki lehiaketa zena, egun marrazki erakusketa bihurtu da. Txirrindularitza probari ere antzekoa gertatu zaio. Txapelketa zena, denok batera egin zuten paseotxoan bihurtu da. Hain zuzen, barruan trikitilariak zituen furgoneta bidea erakusten aritu zen txirrindulariei.

Villabonako jubilatuek Txerminen bazkaldu zuten, ohitura denez. Arratsaldean, emakumeen parte-hartzea sustatzeko jolasetan giro ederra izan zen. Hasieran ez zen jende asko joan ekitaldia ikustera, baina bukaeran ikuslego zabala izan zuten parte-hartzaileek. Jolasen ondoren, plazan Euskal Jaia abiatu zen. Eguraldiak lagunduta, jende ugari zegoen baserriarrez jantzita, erromeriaren doinura dantza eginez gaueko zikiro-jatearen zain.

Hurrengo egunetan, Villabonako ekitaldi nagusienetakoak gaurko Santio Saria Batel Txapelketa (12:00) eta bertso saioa (22:30) eta biharko errebote partida (11:30) eta Erroskilaren errausketa (23:30) izango dira. Altzon, berriz, gaurko txakolin dastaketa (12:00) eta bertso saioa (22:30), biharko XV. Altzoko Igoera (11:30) eta herritarren arteko apustua (18:30) eta etziko herritarren arteko pilota txapelketako finalak (18:30).

hilberria ▶

Dimas Irastorza Garmendia



Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko. Baina bizitzen geran artean ez zaitugu ahaztuko.

ZURE ADISKIDEAK

ORDIZIA, 2006eko uztailaren 30a

urteurrena ▶



Luis Mari Gorosabel Aristegi
(heriotzaren 5. urteurrena)



EZ AGURRIK, GURE BIZITZAN ZAUDE BETIRAKO. MAITE ZAITUGU.

Maite, Daniel, Aintzira, Aitor, Mikel, Amaia eta Mila.

EIBARREN, 2006eko uztailaren 31

hilberria ▶

Anttoni Artola Sarasola



(Attona Joxe Mariren alarguna)
Herenegun hil zen, 86 urte zituela

Amona Anttoni izan zaren bezelakoa izateagatik eta eman diguzun guztiagatik eskerrrikasko bihotz bihotzetik

Zure bilobak: Olatz eta Jexux, Mikel eta Zalao, Aitor eta Aloña, Mirari eta Lontxo, Aitziber eta Orkatz, Iñigo, Jon, Eneritz, Maialen, Ane eta Eneko; zure birlobak: Xuban eta nahia

AMEZKETA, 2006ko uztailaren 30a

urteurrena ▶



Iker San Sebastian Goñi
BIGARRIN URTEBETZEA



2004ko uztailaren 30ean hil zen, 24 urte zituela Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Golan bego—

Zure azken hitza «Gero arte» izan zen guretzat. «Ordizia niak», zure lagunentzat, hitz gutxitan agurtu ginduzun denak, bi urte pasa dira, ta ezer ez da berdin guztiotzat

Bere sendiak

▶ Bihar, astelehena, goizeko 10:00etan, Ugarterko Errosarioko Amaren parrokian ospatuko da Meza Nagusia bere omenez. Aidez aurretik mila esker.

UGARTE, 2006ko uztailaren 30a

▶ hilberriak
▶ urteurrenak
▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ibarra. Irailaren 24ean, egun osoko azoka berezia antolatu du Hauspoa elkarteak. Tolosaldeko artisauei deialdia egiten zaie, bertan parte hartu nahiz izanez gero, Ibarra Benito Izagirre kultur etxera joan beharko dutela goizez, eta izen-abizenak eta telefono zenbakia utzi. **Aduna.** *Trainspotting* antzezlan Juanlo Escuderoren eskutik 18:30ean Asvinenea zentroan. **Ibarra.** San Bartolome jaietako zozketako zenbakiak salgai daude herriko hainbat tabernetan. Hiru zenbaki euro baten truke.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Tolosa. Morant, R. Zabalarreta 1. 943 67 38 49.
 Leitza. Gimeno, A. Elbarren 32. 112.

Bihar
 Tolosa. Olarreaga, A. Korreo kalea 2. 943 67 01 28.
 Leitza. Larraia, M. Elbarren 95. 112.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2)
 Abuztuan: Goizean eta arratsaldean, eskualdeko festen egitarauak orduro. Iluntzean, 20:00etatik aurrera, urtean zehar egindako elkarrizketak entzun ahal izango dira. www.txolarre.org-en entzuteko aukera hemendik aurrera.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



ZORIONAK HI!

Laster 30 urte. Ondo pasa... Apaizaren potroak eta lagunak!



KAIXO IÑIGO

Bihar urte bat gehiago. Elkarteko itxaropena ere handiagoa. Atzeritarr ugari herrian; herriko semeak atzerrian; ametsa buruan, noiz helduko den eguna, guztiok bat eginik biltzeko etxean. Urte askoan! Etxekoak



URTE ASKOAN Marina (Izaskun).

Abuztuaren 14ean urteak beteko ditu. Zorionak amona, Aimar, Iraitx, Ugaiz eta etxekoan partetik.



URTE ASKOAN Iraitx (Izaskun).

Abuztuaren 28an 12 urte beteko ditu. Zorionak etxekoan partetik. Noizko dugu xolomoa?



URTE ASKOAN

Zorionak Iñaki!



URTE ASKOAN

Joxi. Zorionak Izaskun eta familiaren partetik. Ongi pasa gaurko eguna.



URTE ASKOAN

Oskar. Argazkia azkenekoz aterako dugu aurten. Hurrengo urtean sagardotegian elkarrekin ospatuko dugu. Zorionak eta muku handi bat Alegiko koadrilaren partetik!



URTE ASKOAN

Zorionak Enetz!